# munduak guztiontzat behar koluke

## BANAIZ BAGARA

Polikiroldegian, igerilekura sartu aurretik dutxan topatzen dira Patakon eta Tanveer. Tanveer Pakistango gaztea da, bizpahiru urte darama Azkoitian bizitzen eta dutxan kantari ari da, euskaraz.







AHHHHHH! MARRAZO BAT NAIZ!
BEGIRA ANE HAU TANVEER DA, PAKISTANDARRA
AZKOITIAN BIZI DEN PAKISTANDARRA


DENBORA GUTXIAN EUSKARA IKASI DUZU ETA BAITA GURE ABESTIAK ERE? DUTXAN KANTUAN SUMATU ZAITUT
HARRITU EGITEN ZARA? NIRI NORMALA IRUDITZEN ZAIT BIZI ZAREN TOKIKO HIZKUNTZA, ABESTIAK, IPUINAK IKASTEA...


BA ESATEN DUTE EZ DELA BATERE ERRAZA EUSKARA IKASTEA
BENETAN ZAILA EUSKARAZ BIZITZEA DA. NIRE ITXURA HONEKIN JENDE GUZTIAK GAZTELERAZ HITZ EGITEN DIT BETI


AITORTUKO DIZUT NI ERE HARRITU EGIN NAIZELA LEHEN EUSKARAZ KANTUAN ENTZUN ZAITUDANEAN. ZERGATIK EZ DITUZU ZURE HERRIKO KANTUAK ABESTEN?
NIRE HERRIKOAK ERE ABESTEN DITUT, BAINA HEMENGOAK ERE ASKO GUSTATZEN ZAIZKIT. NI EUSKALDUN SENTITZEN NAIZ, ETA EUSKAL KANTUAK NIREAK ERE BADIRA, EZTA
ARRAZOIA DUZU GURE ALTXORRAK KONPARTITZEN IKASI BEHAR DUGU







ni naiz... gu gara

**Banaiz Bagara Elkartea** 2009. urtean sortu zen. Euskal Herrian bizi diren etorkinei euskara ikasteko moduak eskaintzea da elkartearen erronka nagusia.

Oso garbi daukate Euskal Herrian bizi diren herritar guztien eskubidea dela euskara ikastea eta bertako gizartean elkarbizitzeko aukera berdintasuna ematen duela.



Horretarako, leku, ordutegi eta ikasteko mota berriak asmatu, probatu eta eskaintzen ditu.

Bide berean, urtean zehar hamaika ekimen desberdin antolatzen dituzte euskararen inguruan.



Banaiz Bagara Elkartea
Errekalde 14
Urnieta 20130
banaiga@gmail.com